

2. JARDUERAREN ERANTZUNAK

Irakasle taldea
ELORDI GÜENAGA, UDANE
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

ARIKETAREN ERANTZUNAK

IRASKUNTZA EMAITZA ESPEZIFIKOAK	ERIZAINTZA PROZESUAREN ETAPA
Erabiltzailearen osasun egoera ezagutzen du; sor daitezkeen zailtasunei aurrea hartzen die, eta garaiz hautematen ditu erabiltzailearen egoeran izandako aldaketak edo konplikazioak.	B
Erizaintzaren erantzukizunpeko arazoak zein diren zehazten du, eta haien gaineko erizaintza diagnostikoak ematen ditu, unitatean egiten badira.	D
Lehentasuna ematen die berehalako arreta behar duten arazoei.	P
Datuak biltzen ditu behaketa, ahal bada, elkarrizketa, esplorazio fisiko eta historia klinikoaren bidez, erizaintzako eredu bat edo laguntza zentroan ezarritako gidak erabilia.	B
Eskuratutako informazioa aztertzen eta antolatzen du, eta erabiltzailearen beharrak identifikatzen ditu.	B
Identifikatzen ditu lankidetzako edo elkarren menpeko arazoak.	D
Helburuak planifikatzen ditu erabiltzailearekin eta familiarekin, ahal bada, erabiltzailearen osasuna mantentzeko edo hobetzeko, edo heriotza duina izaten laguntzeko. (helburuek errealistak, neurgarriak eta denboran finkatuak izan behar dute).	P
Erizaintzako prozedura espezifikoak egiten ditu, kalitatez eta segurtasunez planifikatuta eta infekzioak eta bestelako konplikazioak prebenitzeko neurriak aplikatuta.	E
Zainketa plana birplanteatzen du, hala behar bada, erabiltzaile eta familiarekin ados jarrita ahal bada.	Eb
Banakako zainketa plan bat egiten du, planteatutako helburuak betetzeari begira, non erabiltzaileari eta/edo familiari erakusten, gainbegiratzen eta laguntzen die, edo ordeztzen ditu.	P
Balioesten du erabiltzailearen eta haren ingurukoen (familia, zaintzaileak, gizarte bitartekoak) baliabideak eta gaitasuna/borondatea, prozesuari aurre egiteko eta autozaintzan inplikatzeko.	B
Bizi estilo osasungarriak bultzatzeko eta pertsonaren eta familiaren autozainketa sustatzeko jarduerak antolatzen ditu.	P
Autozaintza eta Osasun Hezkuntza.	E
Zaintza planaren emaitzak ebaluatzen ditu, planteatutako helburuekin alderatuta.	Eb
Babes emozionala ematen dio erabiltzaileari eta familiari.	E
Erabiltzaileak bere arreta prozesua nola hautematen duen ebaluatzen du.	Eb